

LIBURUA ESKUAN, ETA IBILI MUNDUAN

Eskualdeko liburutegi guztietan ospatu zuten atzo Liburutegien Nazioarteko Eguna, irakurzaletasuna bultzatzeko gidak oparituz

Lorea Muguruza

Atzo, Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatu zuten. Eskualdeko liburutegietan ohikoa baino jende gehiago sumatu ahal izan zen, arratsaldean batez ere, haurrak eskolatik irtendakoan.

Eguna gogoan izateaz gain, Familiak ere kontatzen du, etxean irakurtzeko gogoia pizteko hamabi urrats gida banatu zuten, hainbat axota eta koaderno txikiez gain.

Etxeko txikienengan irakurzaletasuna bultzatzea du helburu liburutegietan banatutako gidak: alde batetik, irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko familiak duen garrantzia azpimarratzen du, baita liburuek etxeko txikienengan dakartzan onurak ere. Esaterako, hiztegi aberatsagoa izaten laguntzen die, eta sormenerako bideak zabaltzen. Bestetik, irakurtzeko gogoia pizteko iradokizunak aurkezten ditu.

Atzo horrelako gidarik eskuratu ezin izan zuenak, sarean bost webgune desberdinetan aurki dezake:

www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua, www.planlectura.es,
www.galtzagorri.org, www.fundaciongsr.es eta www.sol-e.com.
Aholkuak aholku, mundu miragarri edo beldurgarrietan barrena arriskurik gabe ibiltzeko hamaika abentura eskaintzen dituzte liburuek, eta liburutegietan merke-merke eskura daitezke.